

2024ko martxoa




Posta elektronikoa idazteko irizpideak

OHARRA: asteriskoz* eta *kurtsibaz* idatzitakoak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

Mezu elektronikoei behar besteko arreta eskaini behar diogu; izan ere, administrazioaren ohiko komunikazio-tresna bilakatu dira.

Mezu elektroniko komunikatiboak sortzeko, beharrezkoa da honako eremu hauetan zer eta nola idatzi behar dugun aztertzea:



1. MEZUAREN GAIA

- Argi, labur eta zehatz azaldu.
- Mezu bakoitzeko gai bakarra landu. Bi gai azaldu behar baditugu, hobe da bi mezutan bidaltzea.
- Gai bera jorratzen den mezuetan deskribapen bera erabili, berdin izendatu, sailkatze eta artxibatze lana errazteko.

2. MEZUAREN MUINA

HASIERAKO AGURRA

- Formaltasun-mailaren arabera sailkatu, eta behar denean soilik erabili.

SARRERA

- Geure burua aurkeztu eta sarrera esaldia jarri. Kontuan hartu hartzaileak zer dakien gaiaren inguruan.

MUINA

- Mezuak argia, ulertzeko erraza eta zehatza izan behar du. Estilo zuzena erabili, ez hotzegi, ez adeitsuegi jokatu.
- Ahal dela ez idatzi hiru paragrafotik gorako mezurik, eta paragrafo bakoitzean ideia bat garatu.
- Koloreak soilik loturetan ibili; gainerakoan, hondo zuria eta letra beltza erabili.
- 12 puntuko letra tamaina da egokiena, tarteko neurritzat hartzen baita.
- Ez idatzi letra larriz: HASERREA adieraz dezake eta irakurketa oztopatu.

BUKAERAKO AGURRA

- Formaltasun-mailaren arabera sailkatu.

SINADURA

- Jaso datu hauek: izen-abizenak, lanpostua, zerbitzua, telefonoa eta mezua edozeini ez zabaltzeko ohartarazpena.

3. INFORMAZIO OSAGARRIA

- Informazio osagarria erantsitako dokumentuan (PDF formatuan ahal dela) edota lotura bidez txertatu (testuko hitz esaguratsuetan, ez URL bidez).



Ohiko erdarakadak



URA MOZTU ✗



ERREPIDEA MOZTU ✗



URA KENDU ✓



ERREPIDEA ITXI ✓



Egin kontu!

EUSKARAZ BAI, BAINA NOLA?

Hainbatetan ikusi ditugu euskarazko itzulpen desegoki eta xelebreak gure inguruan: lantokietako hizkuntza-paisaia, obretako seinalizazioetan, dendetako eskaparateetan... Baina, ba al dakigu itzulpen horiek zergatik dauden gaizki eta nola zuzendu?

Horregatik sortu dugu EGIN KONTU! atala, eta zuen laguntza behar dugu atala elikatzeko. Inguruan ikusten dituzuen kartel, mezu, idatziak... bidali eta egoki nola idatzi behar diren azalduko dugu.

Noski, jatorria eta egilea isilpean mantenduko ditugu, helburua akatsetatik ikastea da eta!

ARRETARIK GABEKO ZERBITZUGUNEA

Kasu honetan:

denboraldi $\neq$ estación

Itzultzaile automatikoek erraztasunak ekarri badizkigute ere, kontuz ibili behar ditugu; emaitza pertsona batek gainbegiratzeak garrantzia itzela du.

Testu itzulia zuzentzea, guztiz koherente eta ulergarri uztea, ezinbestekoa da horrelako akatsak ekiditeko.

Zain dezagun euskara!

